euskal eskola publikoa eraldatzeko

2025
2028

I. PLAN ESTRATEGIKOA



[Laburpen exekutiboa]

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Deskargatu Euskal Eskola Publikoa
Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa:
www.euskadi.eus/hezkuntza

Ilustrazioa: Ane Arzelus

Edukien
Aurkibidea

01
Sarrera
04. or.

02
Erronka nagusiak
06. or.

03
Balioak eta printzipioak
08. or.

04
Dimentsioak, ardatz estrategikoak eta helburuak
10. or.

05
Planak ustez izango duen eragina
44. or.

06
Jarraipena eta ebaluazioa
45. or.

07
Planaren gobernantza
46. or.

01
Sarrera

Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa (2025-2028) hurrengo urteetan sistema publikoaren garapena gidatuko duen ibilbide-orria da. **17/2023 Hezkuntza Legeak** hezkuntza gizarte aurreratu baten apustu estrategiko nagusitzat hartzen du, gizarte-kohesioarekin, aukera-berdintasunarekin eta garapen jasangarriarekin lotuta.


Testuinguru horretan, Euskal Eskola Publikoa **hezkuntza-sistemaren ardatz egituratzaile** gisa aitortzen da. Plan honek haren funtsezko eginkizuna indartzen du, eta etorkizunerako ikuspegi partekatua zehazten du, ikasleak erdigunean jartzen dituen **kalitatezko eskola inklusibo, berritzaile eta bere komunitateari estuki lotutako baten** alde egiten du, gure garaiko erronka sozial, kultural eta pedagogiko nagusiei erantzuteko gai izango dena.

Dokumentu hau **hezkuntza-komunitate** osoari zuzenduta dago -ikasleei, familiei, irakasleei eta eskolari lotutako gizarte-eragileei-, eta **Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko** etapak hartzen ditu barne.

Plan Estrategikoaren testuingurua eta helburua

Planaren helburua da ikastetxe publikoen eraldaketa pedagogikoa sustatzea, haur eta gazte guztiek kalitatezko hezkuntza inklusiboa jasoko dutela bermatuz, beren konpetentziak erabat garatu eta herritar aktibo eta konprometitu gisa jarduteko aukera izan dezaten.

Era berean, Euskal Eskola Publiko osoari koherentzia eta sare-izaera ematea du xede, **ikastetxe bakoitzaren autonomia errespetatuz**. Horrela, guztientzako diren **helburu komunak** eta hezkuntza-komunitate bakoitzak Plana bere errealitatera eta testuingurura egokitzeko duen gaitasuna uztartzen dira.



Zergatik da funtsezko tresna ikastetxe publikoentzat?

Plan Estrategikoa dokumentu instituzional bat baino askoz gehiago da: **gida praktiko eta partekatua** da, hezkuntza-politika ikastetxeen bizitza errealarekin lotzen duena. Balio handia du **Euskal Eskola Publiko osorako ikuspegi komuna eskaintzean datza**, eta, aldi berean, ikastetxe bakoitzari ikuspegi hori bere testuingurura eta hezkuntza-komunitatearen ezaugarrietara egokitzeko aukera ematen dio.

Plan honek ikastetxeei **beren plangintza hainbat mailatan egituratzen** laguntzen die:

- **Maila estrategikoan**, **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)** zehazteko edo eguneratzeko orientabideak eskaintzen ditu, eta sare publikoaren printzipio komunak zein tokian tokiko berezitasunak jasoko dituela bermatuz.
- **Maila instituzionalean, Zuzendaritza Proiektua (ZP)** epe ertainerako estrategia gisa egituratzeko erreferentziak eskaintzen ditu, zuzendaritza-taldeek lidergo pedagogiko eraldatzailea eta erantzunkidea beren gain har dezaten erraztuz.
- **Maila operatiboan, Ikastetxearen Urteko Planean (IUP)** lehentasunak zehazteko tresna bihurtzen da, epe luzeko helburuen eta ikasgelako eguneroko jardunaren arteko koherentzia bermatuz

Ikastetxeetan **etengabeko hobekuntzaren kultura** indartzen ere laguntzen du Planak, autoebaluazioa, emaitzen analisia eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzea sustatzen duen neurrian. Horrela, ikastetxe bakoitzak bere erronketan aurrera egin dezan bultzatzen du, baina betiere sistema osoan kohesioa bermatzen duen **esparru pedagogiko komun** baten barruan.

Azken batean, Plan Estrategikoa ikastetxeen autonomia arduratsuaren zerbitzura dagoen tresna gisa ulertzen da. Berrikuntza pedagogikorako gaitasuna indartzen du eta, aldi berean, Euskal Eskola Publiko osoaren koherentzia bermatzen du.

Nola egin da plan estrategikoa?

Dokumentua 2023 eta 2025 artean garatutako **partaidetza-prozesu zabal** baten emaitza da, eta **500 profesional eta hezkuntza-eragile** baino gehiagok hartu dute parte. Horretarako, hainbat estrategia garatu dira:

- **Talde-tailerrak** zuzendaritza-taldeekin, irakasleekin, aholkulariekin eta hezkuntza-esparru desberdinetako ordezkariekin.
- Ikastetxe publikoei zuzendutako **inkestak** 358 zentrok erantzun dituztenak (sarearen % 50 baino gehiagok).
- **Eztabaida-taldeak** ikasle eta familiekin, elkarrizketa sakonak eta unibertsitateei zein gizarte-erakundeei egindako kontsultak.
- Informazioa sistematizatzeaz eta azken dokumentua egiteaz arduratu den **talde eragilea**.

Prozesu horri esker, **diagnostiko partekatua** osatu eta Plan Estrategikoa egituratzen duten **4 dimentsio estrategikoak**, **10 ardatzak**, **helburuak** eta **ekintza traktoreak** zehaztu ahal izan dira.

02
Erronka nagusiak

Euskal hezkuntza-sistemak egitura-, pedagogia- eta gizarte-erronkei egin behar die aurre datozen urteetan, eta, erronka horiek Euskal Eskola Publikoaren eraldaketa sakona beharrezkoa izatea eragiten dute. Diagnostiko partekatu batetik abiatuta identifikatutako erronka horiek Plan Estrategiko honen oinarri den erreferentzia-esparrua osatzen dute.

Ikasleak euren garapenaren protagonista

Lehenengo erronka da ikasleak **hezkuntza-prozesuaren erdigunean** jartzea da, haien garapen integrala bermatuz eta **herritar aktibo**, arduratsu eta konprometitu gisa jarduteko prestatuz. Eskolak ez ditu ezagutzak transmititu behar soilik; gizarte-, lan- eta ingurumen-bizitzarako ere prestatu behar ditu ikasleak, mundu konplexu eta etengabe aldatzen ari den bati aurre egiteko konpetentziak sustatuz.

Aldaketa soziodemografikoak eta gero eta handiagoa den aniztasuna

Jaiotza-tasaren beherakadak eta **biztanleriaren zahartzeak** dagoeneko eragina dute Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta laster ere eragina izango dute Bigarren Hezkuntzan. Horrez gainera, **atzerritar jatorriko** ikasleen kopuruak gora egin du, eta horrek errealitate gero eta anitzagoa sortzen du familiari, kulturari, hizkuntzari eta generoari dagokienez. Aldaketa horiek **erantzun inklusiboak eta ekitatiboak** eskatzen dituzte, baita aniztasun handiagoko egoerei aurrea hartzeko gai izango den plangintza ere.

Ekitatea, generoa eta bizikidetza demokratikoa

Hezkuntza-ibilbideetan eragina duten desberdintasunek bere horretan diraute: desberdintasun sozioekonomikoa, genero-arrakala eta eskola-segregazioaren fenomenoa. Lehentasunezkoa da **hezkidetza-eredu orokortu** bat indartzea, nesken eta mutilen arteko orientazio akademiko eta profesionalean dauden desberdintasunak ezabatuko dituena eta indarkeria mota guztiak prebenituko dituena, bereziki generoarekin, sexu-orientazioarekin edo arraza-jatorriarekin lotutakoak. Erronka da **bizikidetza demokratikorako eta herritartasun aktiborako** espazioa izango den eskola eraikitzea.

Ongizate sozioemozionala eta arriskuen prebentzioa

Ikasleen ongizatea funtsezko ardatz bihurtu da. Pandemiaren ondoren, **osasun mentalarekiko kezka, arrisku-egoerak eta laguntza emozional eta sozialerako beharrak** areagotu dira. Eskola publikoak erantzun integrala eskaini behar du, laguntza akademikoa eta arreta psikologikoa, afektiboa eta soziala uztartuz, ikasleentzako ingurune seguruak eta babestuak sendotuko dituena.

Euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna

Euskara hezkuntza-sistemaren **komunikazio-hizkuntza gisa** sendotu behar da, ikasle guztiek euskarazko konpetentzia-maila egokia lortuko dutela eta euskara eskola- eta gizarte-bizitzan erabili ahal izango dutela bermatuz. Aldi berean, **eleaniztasun** eraginkorra sustatu behar da, beste hizkuntza batzuk ere barne hartuko dituena eta ikasleak testuinguru globalean komunikatzeko prestatuko dituena. Kultura-aniztasuna hezkuntza aberasteko faktore gisa integratzea da beste erronka nagusietako bat.

Jasangarritasuna eta ingurumenarekiko konpromisoa

Klima-larrialdiak eta trantsizio ekologikoak **ingurumen-hezkuntza** eta **ingurunearekiko konpromisoa** zeharkako printzipio gisa txertatzeko beharra planteatzen dute. Eskola publikoak jasangarritasunaren eragile aktibo bihurtu behar du, eta ingurumen-erronkei erantzukizunez eta kontzientzia kritikoz aurre egiteko gai diren belaunaldiak prestatu behar ditu.

Eraldaketa digitala eta enplegagarritasuna

Iraultza teknologikoa eta digitalizazioa ikaskuntza-prozesuak eta lan-merkatua eraldatzen ari dira. Erronka da ikasleek **konpetentzia digital kritikoak** eskuratuko dituztela bermatzea, eta ez teknikoak soilik; konpetentzia horiek testuinguru berrietara egokitzeko, informazioa bereizteko eta teknologia modu etikoan erabiltzeko aukera eman behar diete. Gainera, eskolak etengabe eraldatzen ari den lan-merkatu-rako prestatu behar ditu ikasleak, globalizazioak eta digitalizazioak enplegagarritasunerako beharrezkoak diren konpetentziak birdefinitzen baitituzte.



03
Balioak eta printzipioak



Plan Estrategikoaren balioak eta printzipioak indarrean dauden arau-esparruekiko koherenteak dira, eta gure hezkuntza-sistemaren bi oinarritan sostengatzen dira:

1. Hezkuntzarako eskubidea. Haur nahiz nerabe guztien nortasuna eta konpetentziak erabat garatzeko eskubidea.

2. Hezkuntza-sistemaren erdigunean dauden ikasleak. Ikasleen garapen pertsonal eta sozialera bideratutako hezkuntza-sistema, haien premiak erdigunean jartzen dituena. dagoen sistema.

Euskal hezkuntza-sistemaren printzipioak gizarte demokratiko aurreratu baten berezkoak dira eta aniztasuna errespetatuko duen euskal gizarte kohesionatuago bateranzko eraldaketa soziala sustatzen lagunduko dute. Hurrengo irudiak grafikoki laburbiltzen ditu Plan Estrategikoaren balioak eta printzipioak:





IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUEI dagozkien printzipio inspiratzaileak:

- Ahalegin indibiduala eta talde-lana eta lankidetzako ikaskuntza
- Digitalizazio etikoa eta arduratsua
- Hezkuntza berritzailea eta malgua
- Metodologia didaktikoen eta baliabide teknologikoen konbinazioa
- Ikasleak bere ikaskuntza-prozesuaren subjektu aktibo eta protagonista izatea
- Laguntza pertsonalizatuko sistema
- Familien eta hezkuntza-eragileen erantzukidetasuna sustatzea irakasteko eta ikasteko prozesuan

Sistemaren KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA-EREDUA inspiratu behar duten printzipioak:

- Euskal Eskola Publikoaren protagonismoa
- Doako irakaskuntza
- Irakaskuntza-askatasuna eta ikastetxea aukeratzeko askatasuna
- Eskolatze inklusiboa eta orekatua
- Zuzendaritza-taldeen eginkizun nagusia hezkuntza-lidergoan
- Euskal ikastetxeen autonomia
- Irakasleen lanaren aintzatespen soziala
- Familien inplikazioa
- Bizitza osoko ikaskuntzaren sustapena
- Jakintzak uztartzen dituen hezkuntza-eredua
- Hezkidetza-ereduko eskola
- Hezkuntza-sistema eleaniztuna
- Ebaluazioaren kultura



04
Dimentsioak, ardatz estrategikoak eta helburuak



Plan Estrategikoa **4 dimentsiotan** egituratzen da, eta, guztira, **10 ardatz nagusi** ditu. Ardatz bakoitzak **helburu eraldatzaile** bat zehazten du, eta honako hauen bidez garatzen da:

- **Helburu orokorrak eta espezifikoak**, ekintza bideratzen dutenak.
- **Trakzio-ekintzak**, sisteman aldaketa esanguratsuak eragiten dituztenak.
- **Laguntza-neurriak**, hasitako ekimenei jarraipena ematen dietenak.
- **Ikastetxeetan lurreratzeko moduak**, eskola-praktikan nola gauzatzen diren erakusten dutenak.
- **Balio erantsia**, ardatzak eskola publikoa hobetzeko egiten duen ekarpena azaltzen duena.
- **Jarraipen-adierazleak**, ikastetxe bakoitzean eta sistema osoan egindako aurrerapenak neurtzeko aukera ematen dutenak.

Adierazleei dagokienez, bi maila bereizten dira:

1. **Ikastetxe-mailako adierazleak**, hezkuntza-komunitate bakoitzari bere aurrerapena baloratzen eta autoebaluazioa orientatzen laguntzen diotenak.
2. **Sistema-mailako adierazleak**, zentro guztien datuak finkatzea ahalbidetzen dute eta balio dute Planak Euskadin izan duen aurrerapen orokorra ebaluatzeko.



Adierazle horiek benetan operatiboak izan daitezen, horietako bakoitzak **fitxa tekniko espezifiko** bat izango du. Fitxa horretan definituko dira oinarrizko lerroa (hasierako datua), 2028an lortu beharreko jomuga, informazio-iturria eta biltzeko aldizkakotasuna. Dokumentu honetan labur-labur aurkezten dira adierazleak, **erreferentzia estrategiko gisa**, baina xehetasun metodologikoak Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sisteman egongo dira.

Horrela, ardatz bakoitzak ikuspegi estrategikoa, ekintza zehatzak eta ebaluazio-mekanismoak uztartzen ditu, eta datozen lau urteetarako ibilbide-orri argia eskaintzen du.



4 dimentsioak

D1

Erantzunkidetasuna

Erantzunkidetasunak esan nahi du Euskal Eskola Publikoa eraldatzea ahalegin partekatua dela administrazioaren, zuzendaritza-taldeen, irakasleen, ikasleen, familien eta inguruko eragileen artean. Gakoa **lidergo pedagogiko banatua** artikulatzea eta **lankidetza-sareak** indartzea da, ikastetxe bakoitzak aurrera egin dezan, eskola publiko osoaren kohesioa galdu gabe.

1. ARDATZA Lidergo pedagogiko partekatua

2. ARDATZA Hezkuntza-komunitatea eta hezkuntza-sareak

D2

Hezkuntza-bikaintasuna eta ikasleen arrakasta

Euskal Eskola Publikoaren hezkuntza-bikaintasuna ez dago elitismoarekin lotuta. Aitzitik, **ikasle guztiek beren konpetentziak ahalik eta gehien garatzeko** eta bizitza-proiektu oso bat eraikitzeko duten aukerarekin dago lotuta. Dimentsio honek ikaskuntza esanguratsuak, inklusiboak eta kalitatezkoak bermatzea du ardatz, etapa bakoitzean ekitateari eta laguntza pertsonalizatuari arreta berezia eskainiz.

Hori lortzeko, eskola publikoaren **komunikazio-hizkuntza euskara** izango da, eleaniztasunean aurrera egingo du, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak metodologia konpetentzial eta aktibo bihurtuko ditu, eta **irakasleak eraldaketa pedagogikoaren ardatz nagusitzat** hartuko ditu.

Dimentsio honetako hiru ardatzek (3. Ardatza, 4. Ardatza eta 5. Ardatza) ikaskuntzen kalitatea hobetzeko eta ikasle guztiek, beren aniztasuna kontuan hartuta, hezkuntza-arrakasta lortzeko beharrezkoak diren baldintzak zehazten dituzte.

3. ARDATZA Euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna

4. ARDATZA Irakasteko eta ikasteko prozesua

5. ARDATZA irakasleak eraldaketa-prozesuaren ardatz

D3

Ekitatea eta gizarte-kohesioa

Ekitatea eta gizarte-kohesioa dira Euskal Eskola Publikoaren funtsezko zutabeak. Ez da nahikoa sarbide unibertsala bermatzea: **ikasle guztiek, beren jatorria edo egoera edozein dela ere, ikasteko, parte hartzeko eta aurrera egiteko aukera berberak dituztela ziurtatu behar da.**

Dimentsio horrek **eskola-segregazioaren aurkako borroka**, **aniztasunarekiko erantzun inklusiboa** hobetzea, **ongizate sozioemozionala** indartzea eta hezkidetza- eta demokrazia-eskola bat finkatzea bultzatzen du.

Dimentsio hau osatzen duten ardatzek (6. eta 7. ardatzek) honako alderdi hauek azpimarratzen dituzte:

- Desberdintasunak murriztea eta ikasteko oztopoak ezabatzea.
- Ingurune seguruak, inklusiboak eta bizikidetza positiboa sustatzen dutenak bermatzea.
- Hezkidetza, genero-berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua sustatzea.
- Familien inplikazioa bermatzea, bereziki zaurgarritasun-egoera handienean dauden familien kasuan.

Azken helburua da Euskal Eskola Publikoa **justizia sozialaren erreferente** izatea, gizartea hezkuntzaren bidez kohesionatuz eta inklusio, errespetu eta herritartasun aktiborako espazio gisa duen eginkizuna indartuz.

6. ARDATZA Ekitatea eta hezkuntza-inklusioa

7. ARDATZA Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala

D4

Etengabeko hobekuntza eta jasangarritasuna

Euskal Eskola Publikoaren eraldaketa ezin da jarduera puntualetara mugatu; aitzitik, **bere buruarengandik ikasteko, aldaketetara egokitzeko eta denboran zehar lortutako aurrerapenei eusteko** gaitasuna duen sistema bat behar du. Dimentsio honek behar horri erantzuten dio, eta hezkuntza-sistemaren kalitatea eta erresilientzia indartzen dituzten funtsezko hiru eremu uztartzen ditu:

- **Digitalizazioa eta jasangarritasuna:** teknologietarako sarbide ekitatibo eta arduratsua bermatzea, adimen artifiziala barne, eta, aldi berean, jasangarritasuna eta kontzientzia ekosoziala txertatzea ikastetxeen curriculumean eta eguneroko bizitzan.
- **Nazioartekotzea:** Euskal Eskola Publikoa mundura irekitzea, ikasleen eta irakasleen mugikortasuna erraztuz, nazioarteko proiektuak bultzatuz eta kulturarteko konpetentziak indartuz.
- **Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura:** ebidentzietan oinarritutako sistema bat sendotzea, non ebaluazioak etengabeko hobekuntza bideratuko duen eta hezkuntza-berrikuntza ikerketan eta ikastetxeen eta zerbitzuen arteko lankidetzan oinarrituko den.

Hiru ardatz horien bidez ziurtatzen da Euskal Eskola Publikoa **berritzaileagoa, irekiagoa eta jasangarriagoa** izatea, erronka globalei aurre egiteko prestatua eta, aldi berean, komunitatean sakon errotua dagoena.

8. ARDATZA Digitalizazioa eta jasangarritasuna

9.ARDATZA Nazioartekotzea

10. ARDATZA Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura

D1 Erantzunkidetasuna

1. Ardatza
lidergo pedagogiko partekatua

1. ardatzaren helburua

Lidergo pedagogiko partekatuak erantzukizun partekatuan oinarritutako gobernantza eskatzen du. Gobernantza horretan, hezkuntza-komunitateko hainbat eragilek lankidetzan jarduten dute **estrategia diseinatzeko** eta estrategia eta helburu komunak lortzeko jarraitu beharreko norabidea zehazteko. Eskola-zuzendaritzari dagokio, baliabideak eta prozesuak kudeatzeaz gain, proiektu kolektibo ilusionagarri bat bultzatzea, ikasleen arrakastara eta hezkuntza-komunitate osoaren garapen integralera bideratua. Zuzendaritzak zaindu behar du ikastetxearen plangintza estrategikoak bere testuinguruari eta hezkuntza-erronkei erantzuten diela, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) zehazten dela. Proiektu horrek iparrorratz partekatu gisa jardun behar du, pedagogia- eta antolaketa-ekintzarako.

Lidergo pedagogiko partekatua garatzeak berekin dakar hezkuntza-komunitateko hainbat eragileren parte-hartze aktiboa sustatzea, helburu komunak diseinatzean, garatzean eta berrikustean.

Helburuak eta ekintzak

1.1 Helburua

Euskal Eskola Publikoaren nortasun-ezaugarri komunak eta ikastetxe bakoitzaren autonomia modu orekatuan uztartzea, hezkuntza-eredu kohesionatu baina bermatzeko.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
1.1.1 Ikastetxe guztien antolaketan eta kudeaketa pedagogikoan irizpide komunak finkatzea, ikastetxe bakoitzaren identitatea errespetatuz.	• Ikastetxe publiko integratuen pilotajea (CPI/IPI). • Ikastetxe publiko integratuen (IPI/CPI) funtzionamendua arautzeko agindu berri bat egitea eta argitaratzea.
1.1.2 Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektua tokiko beharretara egokitu dezan sustatzea, eta hartutako konponbideek hezkuntza-komunitate osoaren errealitate sozial, ekonomiko eta kulturalari erantzuten diotela ziurtatzea.	• Ikastetxeentzako autonomiari buruzko dekretu bat garatzea eta aplikatzea.

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak.*

1.2 Helburua

Zuzendaritza-taldeen lidergo pedagogikoa indartzea, beren eginkizunak modu efizientean eta eraldatzailean garatu ahal izan ditzaten.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
1.2.1 Zuzendaritza-taldeen lana aitortzea eta haien zuzendaritza-funtzioa irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetzera bideratu dadin bultzatzea.	• Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren (IHP) gida eguneratzea. • Zuzendaritza-taldeentzako koaderno praktikoa, funtsezko mugarrien egutegia jasoko duena. • Kudeaketako tresna digitalak eta lotutako prestakuntza hobetzea. • Lidergo pedagogikoari eta kudeaketari buruzko prestakuntza espezifikoa. Zuzendarien arteko ikaskuntza-sareak eta praktika-komunitateak. • Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan administrazioko langileak sartzea. • Lurralde-arduradunekiko komunikazioa hobetzea • Zuzendaritza-taldeei buruzko otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuaren hedapen integrala.
1.2.2 Hezkuntza-arloko langileen arteko erantzukidetasuna bultzatzea, eta, horretarako, ikastetxeen barruan kohesioa eta koordinazioa ziurtatuko dituen talde-lanaren kultura sustatzea.	• Ikastetxean Lankidetza Koordinatzeko Gune sistematizatu eta eraginkorrak ezartzea, non irakasleak zikloka, etapaka edo proiektuka bilduko baitira hezkuntza-praktikak elkarrekin diseinatu, partekatu eta berrikusteko, erabaki pedagogiko partekatuak hartuta.

Nola lurreratu ardatza ikastetxean?

- Ikastetxeen antolaketa eta kudeaketa pedagogikoan irizpide komunak finkatzea, ikastetxe bakoitzaren nortasuna errespetatuz.
- Ikastetxearen autonomia garatzea.
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) egiteko eta/edo eguneratzeko partaidetza-prozesu sistematikoak diseinatzea, eta, partaidetza-prozesua dinamizatuko duen talde eragilea sortzea.
- Zikloen, etapen eta eskola-mapako ikastetxeen artean koordinazio pedagogikorako gune egonkorrak sortzea.
- kastetxean lidergo partekatuaren kultura sustatzea, ikasgelako lidergotik abiatuta eta hezkuntza-komunitateko eragile guztien artean erantzukizun zehatzak eskuordetuta.
- Urteko hobekuntza-proiektuak zehaztea eta ezartzea, barneko talde espezifikoek gidatuta, ikastetxeko emaitzen analisia sistematikoki bultzatuz eta ikastetxearen autoebaluazioa sustatuz, lehentasun partekatuak definitzeko tresna gisa.
- Zuzendaritza-taldearen lidergo pedagogikoko eta garapen profesionaleko etengabeko prestakuntza espezifikoa bultzatzea, batez ere lidergo pedagogikoari buruzko gaitasunetan zentratuta.
- Zuzendaritza-taldeen lana aitortzea eta haien eginkizuna irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetzera bidera dadin bultzatzea.
- Zuzendaritza-taldeei laguntzea hainbat estrategiaren bidez: tresna digitalak, prestakuntza espezifikoa, ikaskuntza-sareak eta praktika-komunitateak sortzea, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan administrazioko langileak sartzea...
- Ikastetxeen kohesioa eta koordinazioa indartuko duten erabaki pedagogiko partekatuetan oinarritutako prestakuntza sustatzea.

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak.*

Zer balio erantsia eskaintzen dio 1. ardatzak zure ikastetxeari?

1. ardatzak Euskal Eskola Publikoko pertenentzia-sentimendua indartzen du, funtsezko printzipioak balioetsiz, hala nola ekitatea, inklusioa, euskara eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa. Erreferentzia-esparru argia eta partekatua eskaintzen du, ikastetxearen erabaki pedagogikoak eta antolakuntzakoak bideratzen dituena, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari koherentzia eta sendotasuna emanez. Halaber, ikastetxeko emaitzen azterketa sistematikoa sustatzen du etengabeko hobekuntza bideratzko. Ardatz honek, gainera, lidergo pedagogikoa bultzatzen du eraldaketaren benetako eragile gisa, administrazio-kudeaketa hutsetik harago joanez, eta ekimenen garapenean barne-koherentzia handiagoa sustatzen du, ikastetxe bakoitzaren tokiko errealitatera egokitzeko gaitasunari eta malgutasunari uko egin gabe.

Nola neurtu 1. ardatzaren helburuen lorpen-mailan egindako aurrerapenak?

1. ardatzaren funtsezko adierazleak

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) eguneratua eta parte-hartzailea

- **Ikastetxe-maila:** azken 4 urteetan berrikusitako IHP bat du ikastetxeak, irakasleen eta familien parte-hartzearekin egina.
- **Sistema-maila:** IHP eguneratua eta Plan Estrategikoarekin bat datorrena duten ikastetxe publikoen proportzioa.

Zuzendaritza-taldeak pozik daude beren autonomiarekin eta erakundeen laguntzarekin

- **Ikastetxe-maila:** zuzendaritza-taldeak gogobetetze-maila handia aitortzen du bere autonomia-mailari eta jasotako laguntzari dagokienez
- **Sistema-maila:** zuzendaritza-taldeei kudeaketa-autonomiari eta administrazioaren laguntzari buruz egindako inkesten emaitza agregatuak.

Irakasleen koordinazio-egitura aktiboak eta sistematikoak

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak koordinazio pedagogikoko aldizkako bilerak ditu (zikloak, etapak, proiektuak), praktikan eragina dutenak.
- **Sistema-maila:** irakasleen koordinazio-egitura egonkorrak dituztela dioten ikastetxeen ehunekoa, ikuskaritzaren edo Berritzegunearen arabera.

Adierazle osagarriak

Trantsizio-protokoloak eskola-zuzendaritzan

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak prozedura zehatza du zuzendaritzaren-aldaketetarako.
- **Sistema-maila:** Zuzendaritza Proiektuan trantsizio-protokoloa duten ikastetxeen ehunekoa.

Irakasleek eta familiek ikastetxearen erabakietan parte hartzea

- **Ikastetxe-maila:** irakasleek eta familiek IHPa egiten edo eguneratzen parte hartzen dute.
- **Sistema-maila:** irakasleek eta familiek ikastetxeen plangintza-prozesuetan duten parte-hartzearen batez besteko maila, inkestetan jasotakoa.

2. Ardatza
Hezkuntza-komunitatea eta lankidetza-sareak

2. ardatzaren proposamena

2. ardatzaren helburua da hezkuntza-komunitateko kide guztiek — ikasleek, familiek, ikastetxeko langileek eta inguruko eragileek — Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua garatzen **aktiboki parte har dezaten eta konpromiso partekatua** har dezaten sustatzea Parte-hartze bateratu horren helburua da ikasleen garapen integrala bultzatzea eta eskola-arrakasta lortzen laguntzea, aitortuz pertsona bakoitzak ikastetxeko helburu partekatuak lortzeko ekarpen baliotsua egin dezakeela aitortuta.

Ikastetxeen arteko lankidetza-sareetako esperientziek ikaskuntza kooperatiboko eta elkarrekiko laguntzako inguruneak sustatzen dituzte. Ingurune horietan, **estrategiak, esperientziak eta ikaskuntzak parteka daitezke**, eta, gainera, eskola-arrakasta lortzen laguntzen dute.

Helburuak eta ekintzak

2.1 Helburua

Hezkuntza-komunitate osoa modu aktiboan inplikatzea Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen hezkuntza-proiektuetan, eta, hala, ikuspegi integrala, inklusiboa eta parte-hartzailea bermatzea.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
2.1.1 Barneko eta kanpoko komunikazioa hobetzea, eta, horretarako, hezkuntza-komunitate osoa inplikatuko duen harreman, informazio eta komunikazioko sistema integrala ezartzea. .	• Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritza abian jartzea. • Komunikazio-estrategia integrala garatzea eta hedatzea
2.1.2 Parte-hartze aktiboaren kultura sustatzea, eta ikasleen inplikazioa bultzatzea, haur-hezkuntzatik bertatik.	• Eskola-kontseiluak arautzen dituen araudia aldatzea eta zabaltzea. • Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluaren Dekretua egitea eta zabaltzea.
2.1.3 Familien eta ikastetxeen arteko baterako lana indartzea.	• Ikastetxeen eta familien eta/edo legezko tutoreen arteko komunikazioa erraztuko duen gida bat egitea eta zabaltzea.

Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak

2.2 Helburua

Hezkuntza-sistemaren barruan eta kanpoan lankidetza-aliantzak hedatu eta finkatzea, eta hezkuntza-helburuen ikuspegi partekatua sustatzea.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
2.2.1 Lankidetza-esparru bat garatzea tokiko administrazioekin eta beste sistema batzuekin (gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak) eta eragileekin.	• Ikastetxeen eta udalen arteko lankidetza bultzatzea, udaletako hezkuntza-kontseiluak abian jarriz.
2.2.2 Lankidetza-sareak sustatzea ikastetxeen artean eta beste eragile batzuekin.	• Ikastetxeen artean jardunbide egokiak ikusarazteko eta partekatzeko gune bakarra diseinatzea eta zabaltzea, dauden espazioak bateratuz.

Nola lurreratu 2. ardatza ikastetxean?

- Barne- eta kanpo-komunikazioko planak diseinatzea, ikastetxearen barruko eta ingurunearekiko harremana hobetzeko, kanal eraginkorren bidez.
- Hezkuntza-komunitate osoak informazio garrantzitsua modu argi, garden eta une egokian eskuratzeko aukera duela bermatzea.
- Ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzea txiki-txikitatik, eskola-bizitzan inplika daitezen.
- Hezkuntza-etapa bakoitzera egokitutako hausnarketarako eta erabakiak hartzeko guneak sortzea, etapen arteko eta ikastetxeen arteko ekimenak ere barne hartuta.
- Ikasgelan parte hartzeko dinamikak eta erantzukidetasuna indartuko duten lankidetza-proiektuak bultzatzea.
- Familiekiko harremana indartzea, aldizkako topaketen, eskola-jardueren eta prestakuntzarako nahiz hausnarketarako gune partekatuen bidez.
- Beste eragile batzuekin koordinazioa ahalbidetzea hala nola gizarte-zerbitzuekin, osasun-zerbitzuekin eta toki-administrazioekin, ikasleen premiei modu integralean erantzuteko.
- Ikastetxearen parte-hartzea sustatzea ingurunearekin aktiboki lotzen duten proiektu komunitarioetan.
- Ikastetxeen arteko lankidetza-sareak sustatzea, sinergiak eta ikaskuntza partekatuak sortzeko, bai eta hezkuntza-esperientziak, baliabideak eta jardunbide egokiak trukatzeko ere.

Zer balio erantsia eskaintzen dio 2. ardatzak zure ikastetxeari?

2. ardatzak funtsezko balio erantsia ematen dio ikastetxeari, hezkuntza-komunitatearen kohesioa indartuz eta bizikidetza nahiz ikaskuntza-prozesuak hobetzen dituen konfiantza-giroa sortuz. Ikasleen, familien, irakasleen eta inguruko eragileen parte-hartze aktiboa sustatzean, ikastetxea espazio demokratikoagoa, inklusiboagoa eta erantzukideagoa bihurtzen da.

Horri esker, ikasleek inplikazio handiagoa dute beren garapen pertsonal eta akademikoan, familiekiko harremanak sendoagoak eta lankidetzazkoagoak dira, eta irakasleek sarean lan egiten dute, irakaskuntza-jarduna aberasten duten esperientziak eta estrategiak partekatuz. Gainera, ingurunearekiko loturak eta ikastetxeen arteko lankidetzak ikastetxearen izaera indartzen dute hezkuntza- eta komunitate-erreferente gisa, eta egonkortasuna, berrikuntza eta iraunkortasuna ematen dizkiote haren hezkuntza-proiektuari.

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak.*

Nola neurtu aurrerapenak 2. ardatzeko helburuei dagokienez?

2. ardatzaren funtsezko adierazleak

Ikasleek Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) parte hartzea

- **Ikastetxe-maila:** ikasleei kontsulta egin zaie eta proposamenak egin ditu IHPa egiteko edo eguneratzeko.
- **Sistema-maila:** IHPn ikasleen ekarpenak sartzen dituzten ikastetxeen proportzioa, autoebaluazioaren edo ikus-kapen-txostenen arabera.

Familien parte-hartzea eskola-bizitzan eta ikastetxearen plangintzan

- **Ikastetxe-maila:** familiek aktiboki parte hartzen dute eskola-kontseiluetan, bileretan eta erabaki-prozesuetan.
- **Sistema-maila:** familiek ikastetxeetako organo eta jardueretan duten parte-hartzearen batez besteko maila, esko-la-kontseiluen inkesta eta aktetan jasotakoa.

Ikastetxeen arteko eta inguruko eragileekiko lankidetza-sareak

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak beste ikastetxe eta tokiko eragile batzuekiko lankidetza-proiektuetan edo -sareetan parte hartzen du.
- **Sistema-maila:** Sailak edo Berritzeguneek koordinatutako lankidetza-sare egonkorrak osatzen dituzten ikastetxeen kopurua eta proportzioa.

Adierazle osagarriak

Familia kalteberak edo jatorri migratzaileko familiak eskola-partaidetzan sartzea

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak neurriak ditu familia kalteberen edo hizkuntza-zailtasunak dituzten familien parte-hartzea errazteko.
- **Sistema-maila:** familia kalteberen parte-hartzea bermatzeko neurri espezifikoak aplikatzen dituzten ikastetxeen proportzioa.

Ikasleek eta familiek parte hartzeko aukerekiko duten gogobetetzea

- **Ikastetxe-maila:** ikasleek eta familiek positiboki baloratzen dituzte eskola-bizitzan inplikatzeko aukerak.
- **Sistema-maila:** ikasleen eta familien parte-hartzeari buruzko gogobetetze-inkesten emaitza agregatuak.



3. Ardatza
Euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna

3. ardatzaren proposamena

3. ardatzaren helburua da ikasleen **hizkuntza-gaitasuna garatzea**, kalitatezko hezkuntzarako funtsezko oinarri gisa, **euskara komunikazio-hizkuntza ardatz hartuta** eta **eleaniztasuna** sustatuz, komunikaziorako, kulturen arteko ulermenerako eta funtsezko konpetentzia guztien garapen integralerako tresna gisa.

Hizkuntza hezkuntzaren kalitatea bermatzeko oinarria da, eta errealitatea ulertzeko, pentsamendua eta emozioak adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko, mundua ikusi eta ulertzeko eta besteekin harremanetan jartzeko behar diren **gizarte- eta komunikazio-trebetasunak garatzeko tresnak eta baliabideak** eskaintzen ditu. Bereziki, Euskal Eskola Publikoaren esparruan, euskara eta euskal kultura ere identitate-, adierazpen- eta bizikidetza-tresnak dira.

Euskara ardatz hartuta, **eleaniztasuna** sustatzen da, eta, horrela, eskola-jarduera guztietan euskararen ohiko erabilera normalizatua bermatzen da, adierazpen-hizkuntza gisa. Hala ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta pertsonen mugikortasunak gero eta lotura handiagoa duten mundu honetan, eleaniztasunak hizkuntza-errepertorioa zabaltzen laguntzen du. Horrek komunikazio-gaitasuna garatzea ahalbidetzen du, hizkuntzei buruzko ezagutza eta esperientzia guztietan eta hizkuntza-ikaskuntzak hizkuntza batetik bestera transferitzeko aukeran oinarrituta.

Helburuak eta ekintzak

3.1 Helburua

Euskaran hizkuntza-konpetentzia egokia bermatzea, haren erabileran sakontzea eta euskal kulturaren transmisioa sustatzea .

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
3.1.1 Euskara komunikazio-hizkuntza dela ziurtatzea, jardun pedagogikoan, eskola-bizitzan eta ikasleei zein irakasleei euskal kultura transmititzeko bide gisa duen erabilera sendotuz.	• Irakasleentzako eta irakasle ez diren langileentzako hizkuntza- eta kultura-prestakuntza, euskarazko gaikuntza eta euskal kulturaren transmisioa sustatuz. • Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua sendotzea eta abian jartzea. • Hizkuntza-proiektuen garapena, ezarpena eta ebaluazioa ikastetxeetan.
3.1.2 Ikastetxeetan dauden figura profesional guztiek euskara ikasi eta erabil dezaten sustatzea, baita euskararekiko atxikimendua ere.	• EUSLE hizkuntzan murgiltzeko programa indartzea, iraupena eta irismena luzatuz Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan.
3.1.3 Ikasleen hizkuntza-murgilketa indartzea, eta, horretarako, arreta berezia jartzea lehen haurtzaroari eta berandu hasten diren ikasleei.	

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak*

3.2 Helburua

Ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, ikuspegi integral eta eleaniztunetik.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
3.2.1 Ikastetxe bakoitzaren errealitate soziolinguistikora egokitutako hizkuntza-proiektuak diseinatzea eta inplementatzea.	• Ikastetxeetan Irakurketa Estrategia diseinatzeko eta ezartzeko prestakuntza.
3.2.2 Ikuspegi eleaniztuna bultzatzea, hizkuntzen artean ikaskuntzak transferitzen laguntzen duten estrategia metodologikoen bidez.	• Komunikazio-gaitasunari buruzko prestakuntza, ikuspegi integral eta eleaniztun batetik.

3.3 Helburua

Eskola-ingurunea aberastea, eta kultura-aniztasuna hezkuntza-komunitatearentzako aberastasun sozial eta pertsonalerako faktore gisa integratzea.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
3.3.1 Ikasleen hezkuntza, hizkuntza eta kulturaren arloko premia bereziei erantzuteko neurri espezifikoak sortzea.	• Euskal Hezkuntza Sistemarako Esparru Integral Eleaniztun bat diseinatu eta ezartzea, ikasleen euskarazko hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko irizpide komunen erregulazioa barne.
3.3.2 Kulturarteko ikuspegia txertatzen duten hezkuntza-proiektuak garatzea.	

Nola lurreratu 3. ardatza ikastetxean?

- Ikasleen komunikazio- eta hizkuntza-gaitasuna ikuspegi integral batetik garatzea, euskara komunikazio-hizkuntza dela ziurtatuz eta eskola-bizitzako jardun pedagogikoetan euskararen erabilera sendotuz.
- Irakurketa Estrategia ikastetxean ezartzea sustatzea.
- Ikastetxeek beren hizkuntza-proiektuak beren errealitate soziolinguistikora diseinatu eta/edo eguneratu ditzaten bultzatzea.
- Hizkuntzan murgiltzeko EUSLE programa indartzea hezkuntza-etapetan, gure hezkuntza-sistemara iritsi berri diren ikasleei eskolako komunikazio-hizkuntza, euskara, eskuratzeko prozesua errazteko.
- Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren maila egokia bermatzea eta euskal kultura sustatzea, ikastetxeko bizitzan eta curriculumaren zein curriculumetik kanpoko esparruetan.
- Eleaniztasun eraginkorra sustatzea, gutxienez atzerriko hizkuntza bat ikastea barne, ikasleek testuinguru globaletan komunikatzeko eta harremanak izateko aukera izan dezaten.
- Kultura-aniztasuna elementu ikasleen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak balioetsiz eta errespetuzko, inklusioko eta bizikidetzako jarrerak sustatuz.

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak*

Zer balio erantsia eskaintzen dio 3. ardatzak zure ikastetxeari?

3. ardatzak hezkuntza-kalitatea indartzen du, euskararen ezagutza eta ikasleen profil eleaniztunaren garapena bermatuz, eta horrek mundu global batean ikasteko eta parte hartzeko aukerak aberasten ditu. Ikastetxearen nortasuna indartzen du, euskararen ohiko erabilera eta euskal kulturaren transmisioa sustatzen baititu, kidetasunaren, kohesioaren eta bizikidetzaren ezaugarri gisa. Ekitateari ere laguntzen dio, ikasle guztiek inguruko hizkuntzetan gaitasun-maila egokia lortuko dutela ziurtatzen baitu, eta, horrela, desberdintasunak murrizten ditu. Gainera, ingurune inklusiboa eta irekia sustatzen du, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aberastasun pertsonal eta kolektiboaren iturri gisa txertatuz.

Nola neurtu aurrerapenak 3. ardatzeko helburuei dagokienez?

3. ardatzaren funtsezko adierazleak

Ikasleen euskara-gaitasuna DBH amaitzean

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak bermatzen du ikasle gehienek gutxienez B2 maila lortzen dutela DBHko 4. maila amaitzean.
- **Sistema-maila:** DBH amaitzean euskaraz B2 edo C1 maila egiaztatzen duten Euskal Eskola Publikoko ikasleen ehuneko orokorra.

Ikastetxeko hizkuntza-proiektu eguneratuak eta testuinguruan kokatuak

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak bere errealitate soziolinguistikora egokitutako hizkuntza-proiektua du.
- **Sistema-maila:** Hizkuntza Proiektu eguneratuak eta Esparru Integral Eleaniztunarekin bat datozenak dituzten ikastetxeen proportzioa.

Irakurketa-estrategia eta komunikazio-gaitasunaren garapena

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak Irakurketa Estrategia ezarri du, eta hainbat hizkuntzatan ulermen- eta adierazpen-jarduerak sustatzen ditu.
- **Sistema-maila:** Irakurketa Estrategia eraginkortasunez aplikatzen duten ikastetxeen kopurua eta proportzioa.

Adierazle osagarriak

Euskararen erabilera eskola-bizitzan ikasgelatik kanpo

- **Ikastetxe-maila:** ikasleek euskara erabili ohi dute espazio ez-formaletan (patioak, korridoreak, eskolaz kanpoko jarduerak).
- **Sistema-maila:** eskola-bizitzan euskara benetan erabiltzeari buruz ikasleei egindako inkesten emaitza agregatuak.

Kulturarteko jardueretan parte hartzea eta harremana tokiko kultura-eragileekin

- **Ikastetxe-maila:** euskal kulturari balioa ematen dioten eta kulturartekotasuna sustatzen duten jarduerak eta proiektuak antolatzen ditu ikastetxeak.
- **Sistema-maila:**inguruko kultura-eragileekin lankidetza egonkorra duten zentroen proportzioa.

4. Ardatza
Irakatsi eta ikasteko prozesua

4. ardatzaren helburua

4. ardatzaren helburua da ikasle guztiek beren bizi-proiektua arrakastaz garatzeko beharrezkoak diren **funtsezko konpetentziak** eskura ditzaten bermatzea, ikaskuntza esanguratsu, funtzional eta inklusiboen bidez, benetako eta askotariko testuinguruetan aplikatzeko modukoak. Gaitasun horien hobekuntza ekitatearen eta hezkuntza-kalitatearen adierazlea da.

Euskal Eskola Publikoaren helburua da ikasle guztiek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran ezarritako helburuak lortzea. Helburu horiek funtsezko konpetentzien gutxieneko lorpen-maila batetik abiatuta zehazten dira, eta horrek erraztu egiten du beren bizi-proiektua arrakastaz garatzea: **irteera-profila**.

Curriculumak, arau- eta preskripzio-tresna gisa, ikasle guztientzat, aukera-berdintasunean, ikaskuntza esanguratsu eta funtzionalak sustatuko dituzten irakatsi eta ikasteko prozesuak diseinatzeko oinarriak ezartzen ditu. Prozesu horiek oztopoak ahalik eta gehien murriztu behar dituzte, eta benetako inklusioa eta parte-hartzea bultzatu. Ikaskuntza horiek aukera eman behar dute eskuratutako ezagutzak, gaitasunak eta balioak hainbat testuingurutan aplikatzeko, denboran irauteko eta benetako egoeretan arazoak konpontzen laguntzeko.

Irakatsi eta ikasteko prozesuetan erabiltzen diren **metodologiak**, bai eta aurrez aurreko eskola-espazioak ere - eta digitalak -, hausnarketaren eta eraldaketaren xede dira. Esparru horretan, diseinatzen diren material eta baliabide didaktiko berriek ikaskuntza erraztu eta aldaketa metodologikoak lagundu behar dituzte. Eremuka antolatutako lana sustatuko da, ikuspegi integratzaile eta pertsonalizatu gisa; era berean, arlo guztietan metodologia aktiboak eta testuingurura egokituak bultzatuko dira, hezkuntza-ereduarekiko koherentzia bermatuz eta ekitatearen, inklusioaren eta gizarte-kohesioaren printzipioei erantzunez.

Hori guztia **irakasleen elkarlana** sendotzean oinarritzen da, irakaskuntzan koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

Helburuak eta ekintzak

4.1 Helburua

Ikasleen ikaskuntza esanguratsua eta konpetentziala bermatzea, planteamendu inklusiboetan eta metodologia berritzaileetan oinarrituta etengabeko ikaskuntzaren testuinguruan beren garapen pertsonal, akademiko eta profesionalari arrakastaz aurre egin ahal izan diezaioten.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
4.1.1 Metodologia aktibo eta estrategia didaktiko berritzaileak indartzea eta inplementatzea, eta ikasteko espazio malguak, erabilera anitzekoak eta konpetentzien araberako irakaskuntzara egokituak sustatzea.	• Eskola-orduetan banakako tutoretzak indartzeko gida bat diseinatzea eta zabaltzea. • Gida bat diseinatzea eta ezartzea, derrigorrezko hezkuntza osoan tutoretza eta baterako irakaskuntza ezartzeko.

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak*

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
4.1.2 Ikasleek beren ikasteko prozesuan **aktiboki parte hartzeko mekanismoak** diseinatu eta finkatzea, eta prozesu horren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan inplikatzen direla ziurtatzea.	• Irakasleei metodologia berritzaileei, irakaskuntza-teknikei eta gaitasunak ebaluatzeko estrategiei buruzko prestakuntza ematea. • DBHko lehen zikloko eremuetan oinarritutako ikaskuntzarako esparru bat egitea. • Derrigorrezko hezkuntzako maila guztietarako programazio eta ikaskuntza-egoera berritzaileak lantzeko gida bat egitea eta zabaltzea.
4.1.3 Ibilbide bereko ikastetxeen arteko **koordinazio pedagogikoa eta curriculum-koordinazioa** indartzea, eta etapen arteko trantsizio naturalak, koherentzia metodologikoa eta ikasleek beren hezkuntza-ibilbidean behar duten laguntza bermatzea.	• Hezkuntza-mailen, -etapen eta -modalitateen arteko igarobide koherenterako esparru bat garatzea eta zabaltzea.

Nola lurreratu 4. ardatza ikastetxean?

- Metodologia aktiboak eta espazio malguak sustatzea, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, lankidetza eta teknologien erabilera bezalako dinamikak sustatuz, konpetentzia-ikaskuntza esanguratsuak errazten dituzten ingurune moldagarrietan.
- Ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatzea, ikaskuntzaren diseinuan eta garapenean inplikatuz eta haien autonomia, gogoeta eta erantzukidetasuna bultzatuz.
- Hezkuntza-mailen, -etapen eta -modalitateen arteko pedagogia- eta curriculum-koordinazioa sustatzea, trantsizio arinak bermatuz irakasleen lan bateratuaren bidez, metodologia- eta ebaluazio-irizpide partekatuak erabiliz, koherentzia eta etengabeko laguntza bermatuz.
- Banakako tutoretzetarako denbora espezifikoak esleitzea, irakasle bakoitzak ikasleei laguntza pertsonalizatua emateko espazioa duela ziurtatuz, bereziki laguntza-premia bereziak dituzten ikasleei. Gida bat diseinatzea eta ezartzea tutoretza eta irakaskuntza partekatua ezartzeko derrigorrezko hezkuntza osoan.
- Irakasleei prestakuntza ematea metodologia berritzaileei, irakaskuntza-teknikei eta gaitasunak ebaluatzeko estrategiei buruz.
- DBHko lehen zikloko eremuetan oinarritutako ikaskuntzarako esparru bat eta programazio eta ikaskuntza-egoera berritzaileak lantzeko gida bat garatzea.
- Hezkuntza-maila, -etapa eta -modalitateen arteko igarotze koherenterako esparru bat diseinatzea.
- Etapa desberdinetako irakasleen arteko koordinazio-protokoloak ezartzea, bilerak, ikasleen informazio garrantzitsua trukatzea eta hezkuntza-jarraitutasuna erraztuko duten trantsizio-jarduerak barne.

Zer balio erantsia eskaintzen dio 4. ardatzak zure ikastetxeari?

4. ardatzak ikaskuntzaren kalitatea hobetzen laguntzen du, metodologia aktiboetan eta konpetentzia-ikaskuntzetan oinarritzen baita, eta ikaskuntza iraunkorragoak, funtzionalagoak eta bizitza errealarekin konektatuagoak bultzatzen ditu. Ikasleak gehiago inplikatzen eta motibatzen laguntzen du, haien parte-hartze aktiboa sustatzen baitu; ikasleak beren prozesuaren protagonista sentitzen dira, eta horrek beren konpromisoa, autoestimua eta erantzukizuna areagotzen ditu. Benetako inklusioa eta ekitatea sustatzen ditu; izan ere, estrategien eta espazioen aniztasunak ikasleen aniztasunari hobeto erantzutea ahalbidetzen du, oztopoak murriztuz eta aukera-berdintasuna bermatuz. Gainera, hezkuntza-koherentzia indartzen du eta laguntza eskaintzen du hezkuntza-mailen, -zikloen eta -etapen arteko trantsizioak errazteko.

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak*

Nola neurtu aurrerapenak 4. ardatzeko helburuei dagokienez?

4. ardatzaren funtsezko adierazleak

Metodologia aktiboak ikasgelan integratzea

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxeak metodologia aktiboak (ikasketa kooperatiboa, proiektuak, esparruak...) aplikatu ohi ditu hainbat arlotan.
- **Sistema-maila:** programazioetan metodologia aktiboak txertatu dituzten ikastetxeen proportzioa, ikuskaritzaren, Berritzegunearen edo autoebaluazioaren arabera.

Eskola-arrakastaren emaitzak DBHn

- **Ikastetxe-maila:** murriztu egiten da ikasle errepikatzaileen ehunekoa, eta handitu egiten da graduazio-tasa DBHn.
- **Sistema-maila**: DBHko graduazio-tasaren bilakaera eta eskola-uzte goiztiarraren murrizketa sare publikoan.

Trantsizio-estrategiak eta etapen arteko koherentzia

- **Ikastetxe-maila:** irakasleek ebaluazio-irizpideak eta metodologiak koordinatzen dituzte Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko urratsetan.
- **Sistema-maila:** etapen arteko trantsizio-protokoloak dituzten ikastetxeen kopurua eta proportzioa, ikuskaritzan edo lurralde-txostenetan jasoak.

Adierazle osagarriak

Laguntza pertsonalizatzea eta hezkuntza-errefortzua

- **Ikastetxe-maila:** ikasle kalteberek laguntza pertsonalizatua jasotzen dute, eta jasotako laguntzarekin pozik daudela adierazten dute.
- **Sistema-maila:** ikasleek eta familiek errefortzuaren eta laguntzaren kalitateari buruz egindako inkesten emaitzak.

Matematikako, irakurketako eta zientzietako oinarrizko konpetentziak

- **Ikastetxe-maila:** ikastetxearen barne-ebaluazioaren emaitzak hobetzea arlo horietan.
- **Sistema-maila:** errendimendu-mailen bilakaera ebaluazio diagnostikoetan eta nazioarteko probetan, hala nola, PISAn.



5. Ardatza
Irakasleak eraldaketa-prozesuaren ardatz

5. ardatzaren helburua

Irakasleak funtsezko **aldaketa-eragileak** dira, eta Euskal Eskola Publikoaren eraldaketa-ardatz nagusia. Ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubideak **prestakuntza-maila handiko** eta **etengabe ikasten** ari diren profesionalak eskatzen ditu, beren jardunekin, alde batetik, ikasleengan eragin zuzena eta esanguratsua izan dezaten, eta, bestetik, Euskal Eskola Publikoaren etengabeko hobekuntza ahalbidetu dezaten.

Egungo irakaskuntza-ereduak atzean utzi du ikasle pasiboei ezagutzak norabide bakarrean transmititzen dizkien irakasleen rola. Egungo errealitateak ikasgelan **zeregin aktiboa** betetzen duten irakasleak eskatzen ditu, ikasleei beren ikaskuntza-prozesuan eta garapen integralean orientazioa eta laguntza emateko gai direnak, metodologia berritzaileak, ongizate emozionala eta bizikidetza positiboa bultzatuz. Horretarako, **etengabeko prestakuntza** funtsezkoa da: ez soilik eredu pedagogiko inklusibo eta eraginkorra ezartzeko, baita eta motibazio profesionalari eusteko, konpromisoa indartzeko eta irakasle-eginkizunak behar bezala beteko direla bermatzeko ere.

Helburuak eta ekintzak

5.1 Helburua

Irakasleek eraldaketarako eta hobekuntzarako hezkuntza-eragile gisa betetzen duten funtsezko zeregina aitortzea.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
5.1.1 Irakasleen sarrera-profila zehaztea eta irakasleen konpetentzia-esparrua garatzea.	• Irakasleen konpetentzia Esparrua diseinatzea eta irakasleen ebaluazioaren pilotajea egitea. • Ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari buruzko 33/2018 Dekretua eguneratzea eta zabaltzea.
5.1.2 Irakasle-funtzioa aitortzea eta irakasleen ongizatea eta garapen profesionala bermatzea.	• Profil profesional berriei buruzko hausnarketa. • Arrisku psikosozialak prebenitzeko plan bat garatzea eta zabaltzea ikastetxeetako irakasle-taldeetan. • Familiei eta gizarteari zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea, irakasleen ekarpenari balioa emateko, haien lorpenak azpimarratuz, eta ez soilik haien akatsak.

**Oharra: urdinez nabarmentzen dira ardatzaren aitzinamendua neurtzeko ekintza traktoreak*

5.2 Helburua

Irakasleen konpetentziak sendotzea, kalitateko hezkuntza integrala bermatzeko.

Helburu espezifikoak	Ekintzak*
5.2.1 Irakasleen konpetentzia-profilarekin bat datorren hasierako eta etengabeko prestakuntza bermatzea, ikasgelako errealitateak kontuan hartuta.	• Irakasleen etengabeko prestakuntzarako esparru propioa berrikustea eta diseinatzea.
5.2.2 Irakasleei beren funtzioak eraginkortasunez betetzen laguntzeko tresnak ematea eta praktika-komunitateak sustatzea.	• Ikasgelan berrikuntza pedagogikoko prozesuak orientatzeko gida bat egitea eta zabaltzea (irakasleentzako prestakuntzarekin batera).

Nola lurreratzen da 5. Ardatza ikastetxean?

